

ETORKIZUN IRAUNKORRAGOA SORTZEKO LANEAN

Martxoak 11, Bilbo. [BerrAktibatu+](#) programaren helburua zera da: herritarrak inplikatzeko eguneroko ohiturak aldatu eta Euskadin iraunkortasun arloan aurrera egiteko. Programa berri hau 2012 eta 2018 urteen artean Bizkaian landutako Aktibatu+ programaren ondorengoa da. [Aktibatu+](#) programan 4.000 familia, 112 udalerrri, 66 ikastetxe eta 3 unibertsitatek parte hartu zuten. 57.000 pertsona aritu ziren horretan, guztira.

[BerrAktibatu+](#) 2018 eta 2021 urteen artean garatuko da Euskadin. Familia, ikastetxe eta unibertsitateei zuzenduta dago eta doako hiru programa espezifiko ditu, modu paraleloan garatzen direnak. Eduki guztiak datoz bat [2030 Agendaren](#) barruan jasotako Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuekin.

Unibertsitateetako programa

Unibertsitate programa urrian hasi zen eta maiatzera arte egongo da martxan. EHUko Bizkaiko Zuzenbide fakultatea, Lan arloko harreman eta gizarte lanekoa, Hezkuntzakoa eta Gizarte Zientzien Fakultatea eta Mondragon Unibertsitateko Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza gradua lanean ari dira dagoeneko, zentroetan iraunkortasuna hobetzeko.

Hasteko, ikuskaritza bat egin zen, aukeratutako arloan iraunkortasun-maila zein zen aztertzeko: energia, mugikortasuna, hondakinak, elikadura eta abar. Beste gauza batzuen artean, atzeman da ekipo asko uzten direla piztuta, erabiltzen ari ez direla; eta ontzi-hondakin asko sortzen dela. Orain ekintza eta komunikazio kanpainak diseinatzen ari dira, fakultate osoko pertsonen ohiturak hobetzeko asmoz. Programaren hirugarren fasean ikuskaritza errepikatuko da, lortutakoa kuantifikatu ahal izateko. Azken fasean, egindako lana komunitate osoari helaraziko zaio.

Bost lan-talde horiek ikaslez, administrazio eta zerbitzuetako langilez eta irakasle boluntarioz osatuta daude eta helburua zera da: **6.489 pertsona** inguruko unibertsitate-komunitatearen aldaketa lortzea. Web orrian, www.reactivatemas.eus, informazio gehiago aurkituko duzu.

- **Ikastetxeetako programa**

Ikastetxeen kasuan, proba pilotu gisa garatzen ari da, **Bizkaiko 7 ikastetxetan**. Proiektuari esker, ikastetxeetan iraunkortasun arloan egiten den lana gainerako eskola komunitateari helarazi ahal zaio. Horretarako, langileak, familiak eta abar inplikatu behar dira. Interesa duten zentroentzako, parte-hartzea irekia da: www.reactivatemas.eus.

- **Etxeetako programa**

Etxeetako programa erakunde bazkide eta laguntzaileetako langile, erabiltzaile edo bezeroen artean ezagutarazten ari da. Gainera, erreferentziatzako erakunde asko ere plataformaren berri zabaltzen ari dira beren eragin-eremuko sareen artean.

Inskripzioa doakoa da, programaren webgunearen bidez: www.reactivatemas.eus Behin erregistratuta, plataformak galdera erraz batzuen bidez ebaluatuko du eguneroko ohituren iraunkortasuna eta, ebaluazio hori eginda, ohitura horien eragin negatiboak murrizteko ekintza txiki eta xume batzuk proposatuko dira, informazio liburuxkak eskainiz, laguntza modura.

BerrAktibatu+ honako erakundeen ekimena da: [Eusko Jaurlaritza](#), [Bizkaiko Foru Aldundia](#), [Bizkaiko Ur Partzuergoa](#), el [Bizkaiko Garraio Partzuergoa \(BGP\)](#), [Metro Bilbao](#), el [Eroski Taldea](#) eta [“La Caixa” Gizarte Ekintza](#). [Global Action Plan-Plan de Acción Global \(GAP\)](#) erakundean oinarritzen da.

Informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan BerrAktibatu+ programaren idazkariza teknikoarekin. bizkaia.gap@gmail.com